

AKORDIO JAKINARAZPENA

NOTIFICACIÓN DE ACUERDO



OÑATIKO UDALA

idazkaritza@onati.eus
 Telefonoa 943 78 04 11
 Fax: 943 78 30 69
 20560 OÑATI

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 13an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

2019ra begira tabernen ixte ordutegi proposamena

Otsailaren 11ko, 14/2014 Dekretuak, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuko 12. eta 13. artikulua aldatzen ditu, Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk arautzen dituen dekretua alegia.

14/2014 dekretuaren arabera:

12.1.- Udalaren esku geratzen da gehienez ere bi orduz luzatzea tabernen ixte ordutegia, udalak berak edo EAEko organo eskumendunak jai gisa edo interes turistikodun gisa kalifikatu dituzten gertaerak direla-eta. Gertaera horiek, besteak beste, honako hauek izan daitezke: ospakizun publikoak, auzoko jaiak, gertaera sozialak, azokak, sariketak, erakusketak edo antzekoak. Nolanahi ere, urtean, gehienez ere hamabost egunetan luzatu ahal izango da ordutegia.

12.2.- Halaber, udalek gehienez ere bi orduz luzatu ahal izango dute aurreikusitako ixteko ordua, jarraian adierazten diren kasu hauetan:

- a) Herriko jaietan, alegia, udal bakoitzak bere udal-mugardean ofizialki ezarri dituenak.
- b) Aste Santuan, ostegunetik astelehenera; Inauterietan, ostegunetik asteartera; eta Gabonetan, abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra.

12.3.- Aurreko paragrafoetan ezarritakoaz gain, udalek ordutegi orokorra gehienez ere bi orduz luzatu ahal izango dute (urtean, gehienez ere hamabost egunetan), aurreikusi ezin daitezkeen ezohiko inguruabarrak direla-eta, betiere, inguruabar horiek lehenengo paragrafoan aurreikusitako gertaeren antzekoekin zerikusia badute.

Hori dela eta, 2019ra begira, Alkateak tabernak ixteko orduaren luzapen hau proposatu du:

12.1 artikulua arabera, kasu hauetan tabernak ixteko ordutegia luzatzea:

- Auzoetako jaiak: San Migel Txiki, Kale Zaharra, Olakua, San Lorentzo, Kasablanka, Triana eta Errekalde auzoetako jaietan kasu bakoitzean bi egun.
- Korpus jaietan, egun bat

12.2 artikulua arabera, kasu hauetan tabernak ixteko ordutegia luzatzea

- San Migel jaietan
- Aste Santuan, ostegunetik astelehenera
- Inauterietan, ostegunetik asteartera
- Aurtengo Gabonetan, abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra.

12.3. artikulua arabera, kasu hauetan tabernak ixteko ordutegia luzatzea

- Kinttuen zapatua
- Kantoikrit
- Oñatiko Bertso Finala
- Beteranotako finala
- Fan Hemendik
- San Juan 6/22
- Opor aurreko ostirala 7/26
- Abuztuko oporren bueltako larunbata 8/31
- Haurren danborrada eguna

Kasu guztietan, ixte-ordutegiaren luzapena jai-bezpera egunetan aplikatuko da soilik, eta ordu eta erdikoa izango da gehien jota, horrela:

Kategoria	Igandeetatik ostegunera	Ostiral, larunbata eta jai bezperetan	Ekainaren 1etik irailaren 30era	Herriko jaiak, Gabonak, ihauterietan, Aste Santua
Taberna arruntak	1:00ak	+ ordu bat eta erdi	+ 30 minutu	+ ordu bat eta erdi
Taberna bereziak	2:30ak	+ ordu bat eta erdi	+ 30 minutu	+ ordu bat eta erdi

Otsailaren 11ko, 14/2014 Dekretuak bere 13. artikuluan jasotzen du horretarako jarraitu beharreko prozedura zein den:

12.1 eta 12.2 artikuluetan jasotzen den luzapen eskaera hilabete bat lehenago egin behar da eta 12.3 artikuluan jasotzen diren kasuetan 10 egun lehenago. Kasu bietan Jaurlaritzaren ebazpena luzapen-eskaera eskatzen den eguna baino 72 ordu lehenago eman beharko da eta erantzunik ezean (isiltasuna) onartutzat ulertuko da (isiltasun positiboa). Ebazpena edo erantzun eza eguna iritsi baino 72 ordu lehenago jakinarazi beharko zaio Ertzaintzaren komisarian, kontuan har dezaten.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hauek hartu ditu:

- a.- Onartzea tabernen ixte-ordutegia luzatzeko Alkatearen proposamena; hau da, proposatutako egunak eta ordutegiak onartzea.
- b.- Honen berri Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Bulegoari zein Bergarako Ertzaintzaren polizia-etxeari ematea.
- c.- Otsailaren 11ko, 14/2014 Dekretuko 12.6 artikuluan jasotakoaren arabera, herritarrek eta tabernariak horren berri izan dezaten Oñatiko Udalaren web orrian erabaki hau zintzilikatzea

Oñatin, 2018ko abenduaren 18an
Idazkariak



INPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko **AUZI-ERREKURTSOA** aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. c) artikuluaekin bat etorritz.

Nolanahi ere, **nahi izanez gero**, aurreko idazatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtoaren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari **HILABETEKO EPEAN** jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtoak aurkezteari kalterik egin gabe.

MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo de **DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, **con carácter potestativo**, y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

